



OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN JAIJA IKASTOLAN

ABENDUAREN 20AN GOIZEKO JARDUNA IZANGO DUGU 2 URTETIK AURRERAKO MAILA GUZTIETAN



Abenduaren 20an Olentzero eta Mari Domingi jaija ospatuko dugu Ikastolan. Mari Domingi eta Olentzero bisitan etorriko zaizkigu Haur eta Lehen Hezkuntzara. Kopla, bertso eta trikitilariekin egingo diete harrera etapa horietan.

Bigarren Hezkuntzan berriz San Tomas azoka ospatuko dute. Gabon gosaria, azoka, herri kirolak, futbito partida, txokolate jana eta urte amaierako ikuskizunaz osatuko dute programa.

Egun horretarako euskal jantzi tradizionalekin etortzea proposatzen dizuegu.

Oporren bezperako egunean goizeko jarduna izango dugu Haur Hezkuntzako 2 urte eta 2. zikloan eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. **Esko-**

la ordutegia 09:00etatik 13:00etara izango da guztientzat.

IKASLE OHIEN TOPAKETA

12:00etan Ikasle Ohien topaketa ospatuko da Ikastolako sarrerako batzargelan.

ABENDUAREN 20EKO FUNTZIONAMENDUA

Laudio Txikiko 0 eta 1 urtetan ohiko ordutegia izango dute.

JANTOKI ZERBITZUA

Haur eta Lehen Hezkuntzan asteazkenetako funtzionamendua izango dugu. Beraz, ikasleak jasotzeko ordutegia 15:00ak bitartekoa izango da.

ZERBITZU ASISTENTZIALA

Asteazkenetako funtzionamendu berbera izango du.

GARRAIO ORDUTEGIAK

Amurrio: 09:00 - 13:00

Balmaseda: 09:00 - 13:30

Zeberio: BH 09:00 - 13:00

HH eta LH 09:00 - 15:00

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Ostiralean ez dugu eskolaz kanpoko ekintzarik izango.

Gogoan izan eskolaz kanpoko ekintzaren batean baja edo aldaketak idazkaritzan komunikatzeko epea abenduaren 20an itxiko dela.